Aretxabaletako Udala

2026IKI10005

JUSTIFIKAZIO MEMORIA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 28. eta 116. artikuluetan xedatutakoarekin bat, kontratuaren premia egiaztatzeko txosten hau egin da:

Kontratu mota: hornidura eta zerbitzu kontratu mistoa

Kontratuaren objektua: Kontratuaren xedea da erosketa-aukerarik gabeko errentamendu-erregimenean (renting) inprimatze-, digitalizazio- eta formatu handiko ekipoak hornitzea, horien instalazioa, konfigurazioa, martxan jartzea eta mantentze integrala barne, kontratuaren indarraldi osoan, Udalaren bulegoetako inprimatze-, kopia- eta eskaneatze-beharrei eta lotutako gainerako funtzionaltasunei erantzuteko.

Halaber, kontratuaren xedeak Udalaren jabetzakoak diren eta gaur egun instalatuta dauden bi (2) funtzio anitzeko ekiporen desinstalazioa eta erretiratzea barne hartzen ditu. Ekipamendu horiek kontratu honen xede diren bi ekiporekin ordezkatuko dira, inolako kosturik gabe, Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako baldintzen eta ezaugarrien arabera.

Adjudikazio-prozedura: ireki sinplifikatua

Oinarrizko aurrekontua: 112.015,75 € (BEZa barne)

Balio zenbatetsia: 98.632 €

Gehieneko prezio hauek ezartzen dira, BEZik gabe:

- Rentingaren hileko kuota ekipo guztientzat: 900 euro hilean.
- Zuri-beltzeko kopia bakoitzeko mantentze-kuota: 0,009 euro/orrialdea
- Koloretako kopia bakoitzeko mantentze-kuota: 0,055 euro/orrialdea.

Aurreikusitako urteko kontsumoaren zenbatespena honako hau da:

- Zuri-beltzeko inprimatzeak: 185.000 orrialde urtean.
- Koloretako inprimatzeak: 110.000 orrialde urtean.

Kontratuaren iraupena 60 hilabetekoa dela kontuan hartuta, kontratuaren balio zenbatetsia honela kalkulatzen da:

1. Ekipoen rentinga: 900 € hilean × 60 hilabete = 54.000 €

2. Mantentze-lanen kostu aldakorra zuri-beltzean:
185.000 orrialde/urteko × 0,009 €/ orrialdea × 5 urte = 8.325 €

3. Mantentze-lanen kostu aldakorra koloretan:
110.000 orrialde/urteko × 0,055 €/ orrialdea × 5 urte = 30.250 €

4. Aurreikusitako aldaketak: ekipamendu gehigarriak izateko aukera, premia berriei erantzuteko:

Ekipo gehigarriak Baldintza Teknikoen Agirian zehaztutako motetako batekin bat etorri beharko dira (B, C eta D motak). Ekipo gehigarrietarako aurreikuspen estimatua (rentinga + mantentze-lanak): 6.057 €.

Sinatzailea	INFORMATIKARIA Leire Urbieta Gandiaga
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQWKKQ.r7dU

Aretxabaletako
Udala

Kontratuaren balio zenbatetsia (BEZik gabe): 54.000 € + 8.325 € + 30.250 € + 6.057 € = 98.632 €

Partidak:
1.0601.204.920.00.01 (1308)
1.0601.212.920.00.01 (22)

Kontratuaren iraupena: bost urte (60 hilabete)

Saila: Idazkaritza

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da erosketa-aukerarik gabeko errentamendu-erregimenean (renting) inprimatze-, digitalizazio- eta formatu handiko ekipoak hornitzea, horien instalazioa, konfigurazioa, martxan jartzea eta mantentze integrala barne, kontratuaren indarraldi osoan, Udalaren bulegoetako inprimatze-, kopia- eta eskaneatze-beharrei eta lotutako gainerako funtzionaltasunei erantzuteko.

Halaber, kontratuaren xedeak Udalaren jabetzakoak diren eta gaur egun instalatuta dauden bi (2) funtzio anitzeko ekiporen desinstalazioa eta erretiratzea barne hartzen ditu. Ekipamendu horiek kontratu honen xede diren bi ekiporekin ordezkatuko dira, inolako kosturik gabe, Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako baldintzen eta ezaugarrien arabera.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau kontratu mistoa da, hornidura- eta zerbitzu-kontratuei dagozkien prestazioak barne hartzen baititu.

Zehazki, renting bidez ekipoak hornitzea (renting) eta kontratua indarrean dagoen bitartean ekipoak instalatu eta mantentzeko zerbitzuak ematea hartzen ditu barnean.

Aurrekontua 112.015,75 eurokoa da (% 21eko BEZa barne).

2. KONTRATUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Udalak inprimatze- eta digitalizazio-ekipo egokiak izan behar ditu, udal-zerbitzuek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko.

Zerbitzu integral bat renting erregimenean kontratatzeak, ekipoen hornidura, instalazioa, mantentzea eta laguntza teknikoa barne, haien erabilgarritasuna ziurtatzea, zaharkitze teknologikoa saihestea eta zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzea ahalbidetzen du.

Era berean, inprimatze-parkearen kudeaketa integralak gorabeherak konpontzea eta kostuak kontrolatzea errazten du, eta konponbide beharrezkoa eta egokia da, Udalak ez baitu prestazio horiek zuzenean bere gain hartzeko baliabide tekniko eta pertsonal nahikorik.

3. KONTRATAZIORAKO DATUAK

3.1. CPV:

Sinatzailea	INFORMATIKARIA Leire Urbieta Gandiaga
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQWKKQ.r7dU

- 30120000-6: Fotokopiagailuak, offset makinak eta inprimagailuak
- 50313000-2: Erreprografiako makinen mantentzea eta konponketa
- 50313200-4: Fotokopiagailuen mantentze-zerbitzuak

3.2. ZATIKAPENA LOTETAN: EZ

Konponbide integral eta homogeneo bat izateko beharrari, prestazioen artean dagoen lotura eta osagarritasunari, ekipoen funtzionamendu egokia bermatzeko arduradun bakarra izateko beharrari eta hainbat esleipendunen esku-hartzeak sor ditzakeen koordinazio-zailtasunei eta erantzukizunak mugatzeko arazoei erreparatuta, kontratuaren xedea loteetan ez banatzea justifikatzen duten arrazoi tekniko eta kontratuaren xedearen izaeratik beretik eratorritako arrazoi baliodunak daudela ulertzen da, SPKLren 99.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

3.3. AURREKONTUA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 112.015,75 eurokoa da (BEZa barne).

Kontratuaren balio zenbatetsia 98.632 €-koa da.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe): 112.015,75 €

Luzapenak: ez dira aurreikusten.

Aurreikusitako aldaketak: Bai (hurrengo atala).

Jarduera honako partida hauen kargura finantzatuko da, eta kreditu nahikoa eta egokia egongo da:

Ekitaldia	Aurrekontu-partidak	Zenbatekoa
2026	1.0601.204.920.00.01 (1308) 1.0601.212.920.00.01 (22)	1.089 € 777,93 €
2027	1.0601.204.920.00.01 (1308) 1.0601.212.920.00.01 (22)	13.068 € 9.335,15 €
2028	1.0601.204.920.00.01 (1308) 1.0601.212.920.00.01 (22)	13.068 € 9.335,15 €
2029	1.0601.204.920.00.01 (1308) 1.0601.212.920.00.01 (22)	13.068 € 9.335,15 €
2030	1.0601.204.920.00.01 (1308) 1.0601.212.920.00.01 (22)	13.068 € 9.335,15 €
2031	1.0601.204.920.00.01 (1308) 1.0601.212.920.00.01 (22)	11.979 € 8.557,22 €

3.4. KONTRATUAN AURREIKUSITAKO ALDAKETAK:

Ekipo gehigarriei dagokienez, honako aldaketa hauek aurreikusten dira:

Kontratua indarrean dagoen bitartean, hasieran aurreikusitakoez gain, beste ekipo batzuk hornitzeko, instalatzeko eta mantentzeko eskatu ahal izango du udalak, udal-zerbitzuen behar berriei erantzuteko beharrezkoa denean.

Sinatzailea	INFORMATIKARIA Leire Urbieta Gandiaga
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQWKKQ.r7dU

Ekipamendu gehigarriek bat etorri beharko dute baldintza teknikoen agirian zehaztutako motetako batekin (B, C eta D motak), eta ekipamendu horietarako ezarritako gutxieneko ezaugarri tekniko eta mantentze-baldintza berberak izan beharko dituzte.

Ekipo horien hornidura adjudikaziodunak ekipo mota bakoitzerako eskainitako unitate-prezioak aplikatuz egingo da, eta kontratuaren gainerako baldintzak ezin izango dira aldatu.

Ekipo gehigarriak jartzeko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da, eta baldintza-agirietan eta aplikatu beharreko kontratazio publikoko araudian ezarritako baldintzen arabera egingo da.

3.5. GAUZATZEKO EPEA: 60 hilabeteko exekuzio-epea aurreikusten da.

Ekipoak hornitzeko, instalatzeko, konfiguratzeko eta martxan jartzeko gehieneko epea 30 egun naturalekoa izango da, kontratua formalizatzen denetik aurrera.

3.5.1. Epe partzialak: EZ
3.5.2. Harrera partzialak: EZ

3.6. ORDAINTZEKO MODUA:

Kontratistak dagozkion fakturak aurkeztu ondoren ordainduko da kontratuaren prezioa, honen arabera:

Kontratuaren prezioa benetan emandako zerbitzuei dagokien hileko ordainketaren bidez ordainduko da. Aldez aurretik, enpresa esleipendunak dagokion faktura aurkeztu beharko du, eta kontratuaren ardura duen udal-teknikariak gainbegiratu eta egiaztatuko du, eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko du. Era berean, fakturak indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak bete beharko ditu.

Ez da ordainduko baldintza-agirian aurreikusitako kontratuaren xedetik kanpo emandako lan edo zerbitzurik, edo, hala badagokio, entitate kontratatzaileak aldez aurretik eskatu ez duen lanik edo zerbitzurik.

3.7. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Prozedura	**Atalasea**	**Esleitzeko irizpideak**	
Ireki sinplifikatua	Balio zenbatetsia: 98.632 € (zerbitzuak/hornidura) ≤ 143.000 €	Balio-judizioaren mende daudenak: bat ere ez. Irizpide guztiak formulak aplikatuz baloratuko dira.	

3.8. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea: 15 egun natural.

3.9. KAUDIMEN-BETEKIZUNAK

Lizitatzaileek ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatu beharko dituzte:

- **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.** Kontratuaren eremuan eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietako (hau da, urteko kontuak onartuta izateko obligazioa betetzeko data igaro dutenak) negozio bolumenik onena, gutxienez, 98.632 eurokoa izan beharko da.

- **Gaitasun teknikoa edo profesionala**. Kontratuaren objektuaren izaera berdina edo antzekoa duten egikaritutako zerbitzu/hornidura nagusien zerrenda, gehienez ere azken hiru urteetan burutuak eta 69.042,4 €-ko gutxieneko zenbatekoarekin (BEZik gabe).

Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuetan, kontratista berriki sortutako enpresa bat bada —hau da, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna duenean—, haren kaudimen teknikoa 89. artikuluko b) eta e) letretan aipatzen diren bitartekoetako baten edo batzuen bidez egiaztatuko da; nolanahi ere, ez da aplikatuko a) letran ezarritakoa, hornidura-kopuru jakin bat gauzatzeari buruzkoa.

b) Kontratua gauzatzeko eskuragarri dauden langile teknikoen edo unitate teknikoen adierazpena, enpresan integratuta egon ala ez, bereziki kalitate-kontrolaz arduratzen direnena.
e) Hornitu beharreko produktuen laginak, deskribapenak eta argazkiak, horien benetakotasuna kontratazio-erakundeak hala eskatuz gero ziurtatu ahal izango delarik.

3.10. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK:

9/2017 Legearen 202. artikuluaren arabera, honako hauek hartu dira kontratua egikaritzeko baldintza berezitzat:

- Hizkuntza Normalkuntzako teknikariak ezarritako hizkuntza-betebeharrak.
- Ingurumen teknikariak ezarritako ingurumen-betebeharrak.
- Lan-baldintzei dagokienez, kontratistak nahitaez bete behar ditu lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak, bai eta aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren araberako soldata-baldintzak ere, hori guztia kontratu honen xede diren horniduretan lan egiten duten langileei dagokienez. Administrazioa ez-betetze horren erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi hau betetzen ez bada edo behar bezala betetzen ez bada, kontratuaren esleipen-prezioaren gaineko % 4ko zigorra ezarriko da.

3.11. AZPIKONTRATAZIOA:
Ez da azpikontrataziorik onartuko.

3.12. LAN EGITASMOA: EZ

3.13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

Balorazio-irizpideak 9/2017 Legearen 145. eta 159. artikuluetan adierazitakoaren arabera zehaztu dira.

Formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideak: 100 puntu gehienez.

Lizitatzaileek aurkeztutako eskaintza ekonomikoak baloratzeko, prozedura honi jarraituko zaio:

a) Eskaintza ekonomikoa: rentingaren hileko kuota osoa: 50 puntu gehienez.

Kontratuaren xede diren ekipo guztien rentingaren gehieneko hileko kuota 900 €/hilean ezartzen da (BEZik gabe).

Lizitatzaileak eskainitako renting-aren hileko kuota osoa baloratuko da. Kuota hori **II. ERANSKINEAN, FORMULAK APLIKATUTA BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK** ereduan, eurotan eta BEZik gabe adierazi beharko da.

Puntuazio handiena emango zaio renting-aren hileko kuota oso baxuena aurkezten duen eskaintzari, eta gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira, honako formula honen bidez:

Puntuazioa = 50 × (Eskaintza ekonomiko baxuena/Baloratu beharreko eskaintza ekonomikoa)

b) Koloretako orrialde bakoitzeko kostua: 25 puntu gehienez.

Koloretako orrialde bakoitzeko mantentze-lanen gehieneko kostua 0,055 €/orrialdekoa izango da (BEZik gabe).

Lizitatzaileak eskainitako koloretako orrialde bakoitzeko unitateko prezioa baloratuko da. Prezio hori **II. ERANSKINEAN, FORMULAK APLIKATUTA BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK** ereduan, eurotan eta gehienez lau hamartarrekin adierazi beharko da, eta kontratuaren xede diren inprimaketa-ekipoei eta funtzio anitzeko ekipoei aplikatuko zaie.

Puntuazio handiena emango zaio koloretako orrialde bakoitzeko preziorik txikiena eskaintzen duen proposamenari, eta gainerako proposamenak proportzionalki baloratuko dira, honako formula hau aplikatuta:

Puntuazioa = 25 × (Eskaintza ekonomiko baxuena/Baloratu beharreko eskaintza ekonomikoa)

c) Zuri-beltzeko (B/E) orrialde bakoitzeko kostua: 10 puntu gehienez.

Zuri-beltzeko orrialde bakoitzeko mantentze-lanen gehieneko kostua 0,009 €/orrialdekoa izango da (BEZik gabe).

Lizitatzaileak eskainitako zuri-beltzeko orrialde bakoitzeko unitateko prezioa baloratuko da. Prezio hori **II. ERANSKINEAN, FORMULAK APLIKATUTA BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK** ereduan, eurotan eta gehienez lau hamartarrekin adierazi beharko da, eta kontratuaren xede diren inprimaketa-ekipoei eta funtzio anitzeko ekipoei aplikatuko zaie.

Puntuazio handiena emango zaio zuri-beltzeko orrialde bakoitzeko preziorik txikiena eskaintzen duen proposamenari, eta gainerako proposamenak proportzionalki baloratuko dira, honako formula hau aplikatuta:

Puntuazioa = 10 × (Eskaintza ekonomiko baxuena/Baloratu beharreko eskaintza ekonomikoa)

d) A motako (A1 + A2) ekipoen inprimatze-abiadura hobetzea: 10 puntu gehienez.

A motako (A1 + A2) funtzio anitzeko ekipoen inprimatze-abiaduraren gehikuntza baloratuko da, Baldintza Teknikoen Pleguan eskatutako gutxieneko abiadurarekiko (45 ppm, zuri-beltzean zein koloretan). Gehikuntza hori **II. ERANSKINA. FORMULEN BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK** ereduan adierazi beharko da.

Puntuazioa banaka emango zaio eskainitako A motako bost ekipoetako bakoitzari, eskala honen arabera:

- 55 ppm-ko edo gehiagoko inprimatze-abiadura duten ekipoak: 2 puntu ekipo bakoitzeko.
- 50 ppm-ko edo gehiagoko eta 55 ppm-tik beherako inprimatze-abiadura duten ekipoak: puntu 1 ekipo bakoitzeko.

Sinatzailea	INFORMATIKARIA Leire Urbieta Gandiaga
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQWKKQ.r7dU

- 45 ppm-ko edo gehiagoko eta 50 ppm-tik beherako inprimatze-abiadura duten ekipoak: 0 puntu.

Irizpide honetan 10 puntu emango dira gehienez.

e) Emakumeen presentzia talde teknikoan: 5 puntu gehienez.

1,25 puntu emango dira kontratuari atxikitako talde teknikoko emakume bakoitzeko, eta 5 puntu emango dira gehienez.

Irizpide hori egiaztatzeko, lizitatzaile diren enpresek **II. ERANSKINA. FORMULEN BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK** ereduan talde teknikoari atxikitako emakumeen zerrenda adierazi beharko dute, eta, emakume bakoitzari dagokionez, honako hauek zehaztu: izen-abizenak, NAN zenbakia, betetzen duen lanpostua eta haren eginkizunak.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituen eskaintza bat aintzat hartzeko parametroak:

Honako artikulu honetan ezarritakoa beteko da: SPKLren 149. artikuluan eta Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikulua.

Berdinketa hausteko irizpide espezifikoak
SPKLren 147.2 artikuluan ezarritakoa beteko da.